



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2019

Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain
T. 943 592 556

✉ kluster@soziolinguistika.eus

📍 www.soziolinguistika.eus

f sklusterra

🐦 @sklusterra



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika Klusterrak ikerketa, garapen eta berrikuntza **proiektuak eginez** eta bertako zein nazioarteko soziolinguistika **ezagutza kudeatuz** egiten dio ekarpena euskararen gizarte garapenari.

Ezagutza zorrotza eta fidagarria eskuratzeko, **metodo zientifikoa baliatuz** jarduten du unibertsitate esparruko ikerlariarekin, administrazio publikoarekin, enpresa pribatuekin eta euskararen aldeko gizarte mugimenduekin **elkarlanean**. Soziolinguistika Klusterrak euskararen hiztun komunitateari ekarpena egiteko xedez, sortutako ezagutza soziolinguistikoa **gizartean ahal bezainbeste hedatzeko bokazioa** du.



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons
Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa
(CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da.
Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu
<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

**SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
URTEKO TXOSTENA 2019**



Osaketa grafikoa: **ZIRKIMARRA** ESTUDIO GRAFIKOA

Martin Ugalde Kultur Parkea • 20140 ANDOAIN

BAZKIDEAK

OHOREZKO BAZKIDEA:



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUNDE BAZKIDEAK:

- Artez Euskara Zerbitzua
- BAI Euskarari Elkartea
- Bermeoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Ebete elkarte
- Elhuyar Aholkularitza
- Emun Kooperatiba Elkartea
- Erandioko Udala
- Errenteriako Udala
- Euskal Herriko Ikastolak
Europar Kooperatiba Elkartea
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskaltzaleen Topagunea
- Euskaraz Kooperatiba Elkartea (AEK)
- Eusko Ikaskuntza
- Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
- Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea.
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
- Hernaniko Udala
- HUHEZI Koop. E.
Mondragon Unibertsitatea (MU)
- Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide
Elkartea (NETLE)
- Sakanako Mankomunitatea
- Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea
(UEMA)
- Zumaiaiko Udala



NORBANAKO BAZKIDEAK:
72 pertsona

URTEKO TXOSTENA 2019 AURKIBIDEA

1	Lehendakariaren agurra	4 or.
2	Nortasuna, erabaki-guneak eta bulego teknikoa	5 or.
3	PROIEKTUAK	7 or.
	01. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Udalerri mailako analisia	8 or.
	02. Hitzun gazteen hizkuntza praktiken, bizipenen eta diskurtsoen azterketa	9 or.
	03. Euskararen Adierazle Sistema (EAS)	10 or.
	04. Arrue Proiektua	11 or.
	05. Izaskun Arrue Proiektua.....	11 or.
	06. Gipuzkoako Hizkuntzen Mapa.....	12 or.
	07. Uda Ikastaroa: Immigrazioa eta hizkuntza-aniztasuna: harrera integralaren bila	13 or.
	08. Euskaraldiaren ikerketa	14 or.
	09. XI. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia: Euskaraldia aztergai.....	15 or.
	10. Hizkuntzen Erabileraren Neurketa Bereziak.....	16 or.
	11. Hizkuntzen Erabileraren Neurketak EHUn	16 or.
	12. Kirol-jardueretan Hizkuntzen erabileraren neurketa. Oarsoaldea	17 or.
	13. Arabako jolas-txokoetan euskararen diagnostia	17 or.
	14. Eibarko familien hizkuntza-egoeraren diagnostia	18 or.
	15. Eralan5.....	18 or.
	16. Aldahitz Ikerketa	19 or.
	17. Eusle Hezkuntzan	20 or.
	18. Hizkuntza-ohiturak Osakidetzan.....	20 or.
	19. D ereduko kirola ikerketa ekintza proiektua.....	21 or.
	20. Jendaurrean Erabili	22 or.
	21. Gipuzkoa Berdinago.....	23 or.
	22. Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa	24 or.
	23. Berba-lapiko.....	25 or.
	24. Berbekin	26 or.
	25. Hitanoa lantzeko egitasmoa (Azpeitia eta Zumaia).....	27 or.
	26. Ahozkotasuna: prestakuntza-saioak eta tailerrak.....	28 or.
	27. Ibili.....	29 or.
	28. Txillardegia-Hausnartu Soziolinguistika Sariak.....	30 or.
	29. BAT Soziolinguistika Aldizkaria.....	31 or.
	30. Soziolinguistika Albistaria	32 or.
4	Lankidetzak, harremanak eta bestelakoak	33 or.

1

Lehendakariaren agurra 2019ari buruz



Maddi Etxebarria.
Lehendakaria

Lan eta proiektu berriez osatutako urtea izan da 2019koa Soziolinguistika Klusterrean. Guretzat oso berezia izan da, orain arte Hausnartu Sariak izan direnak Txillardegi-Hausnartu Sariak izendatzea. Izan ere, Jose Luis Alvarez Enparantza, soziolinguistika arloko bidegile bezala egindako lan eta ardura askoren artean, BAT aldizkariaren zuzendaria izan zen 1992tik 2002ra; beraz, Klusterreko bazkide, langile eta eragileentzako ohore handia izan da bere izena hor ikustea. Gainera, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan honen baitan, sariak handitu dira eta unibertsitatearen bazkideztza formalizatu egin da.

Euskaraldiaren ondorengo urtea ere izan da. 2018ko udazkenean egindako ariketa baloratu eta izandako eragina aztertzeke ikerketaren emaitzak aurkeztu ditugu. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia ere azterketa horretarako plaza gisa antolatu genuen, Tolosan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza-rekin lankidetzan. Gogoeta askotarako eman zigun egunak, bai egindakoaren gainean, bai hurrengo ekitaldietarako kontuan hartu beharrekoen inguruan.

Beste hainbat proiektu ere izan ditugu esku artean, txikiak eta handiak, laburrak eta luzeak; zientifikotasunez eta lankidetzan landutakoak. Diagnostikoak osatzeko izan dira batzuk. Gipuzkoako hizkuntza-aniztasunaren mapa egin dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz; webgune batean jaso da informazioa eta EHUKo Uda Ikastaroetan ere landu zen gaia. Bestalde, hizkuntzen erabilera eragiten duten faktoreen azterketa kuantitatiboa egin dugu, Natxo Sorolla soziolinguistarekin batera.

Horietaz gain, esku-hartzeak dira proiektuen beste lerro nagusi bat. Adibidez, Aldahitz ikerketaren (hizkuntza-ohitu-

ren aldaketa-prozesuak aztergai dituen) mugarri garrantzitsua izan dugu: Ulerrizketa metodologia argitaratu eta Gasteizen egindako mintegian aurkeztu genuen, besteak beste, 200 pertsona baino gehiagoren aurrean. Jendaurreko komunikazioa, tokian tokiko aktibazioa edo eskoletako ahozkitasuna ere lantzen jardun dugu.

Nazioartean ere jardun dugu, euskararen biziberritzean lantzen diharduguna zabaltzen, beste ikergune eta hiztun komunitateak hobeto ezagutzen eta lankidetzan aukerak jorratzen. Galesen, Okzitanian, Frisian, Valladoliden eta Katalunian egon gara, besteak beste. Eta Euskal Herrian egin diren hainbat nazioarteko kongresu eta mintegitan ere parte hartu dugu. Atzerriko jendea ere jaso izan dugu gurean; Galeseko unibertsitate-tako hizkuntza-plangintzaz arduratzen den lantaldea, Frisiako Afûk erakundeko ordezkaritza, NPLDKo bazkideak eta Jacqueline Urla ikerlaria, besteak beste.

Eta hori guztia ezinezkoa litzateke, bulegotik lan egiten duten ikerlari eta teknikari bariak. Lantalde sendoa eta jakintza handikoa. Horiekin batera, unibertsitateetako hainbat irakasle eta ikerlari proiektuetako zuzendari-lanetan aritu dira urtero legez. Azkenik, bazkide eta laguntzaileak ere izan ditugu bidelagun, proiektuetan parte hartuz eta Klusterren norabidea zehaztuz.

Udazkenean hasi dugu gogoeta estrategikoa, datozen urteetako Soziolinguistika Klusterra nolakoa izatea nahi dugun hausnartzeko: euskararen biziberritzearen ikergunea, Euskal Herri osokoa, lankidetzan egindakoa... Gai horietaz mintzatzen eta hausnartzen jarraituko dugu euskararen hiztun komunitateak behar duen soziolinguistika ezagutza sortu eta zabaltzeko.

2

NORTASUNA, ERABAKI-GUNEAK ETA BULEGO TEKNIKA

Nor gara, nora goaz eta nola antolatzen gara

NORTASUNA

Soziolinguistika Klusterra irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta Berrikuntza-ko Bitarteko Erakunde izaera aitortua du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza-ren Euskal Sareko (ZTBS) eragile gisa.

Misioa

Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren erronka, interes eta beharrei erantzuteko. Hori lortzeko lanean diharduten bazkide, erakunde publiko, gizarte eragile, zientzia eragile eta bestelako eragileen soziolinguistika alorreko baliabide eta gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu. Horretarako, elkarlanean, ikerketa, garapen, berrikuntza eta ezagutza kudeatzeko proiektuak garatzen ditu, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak erai-kiz.

Bisioa

Soziolinguistika Klusterrak soziolinguistika arloko I+G+Bko erreferentziazko agente izan nahi du, euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan eragile paper hartuz.

Balioak

- **Zientifikotasuna:** Metodo zientifikoa oinarrituta autonomiaz jarduten du.
- **Elkarlana:** Osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan.
- **Gizarte-konpromisoa:** Euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoia. Eragile ezberdinekin elkarlanean egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabalduko ditu gardentasunez.

ERABAKI-GUNEAK

Batzar Orokorra

Bazkide guztiek dute Batzar Orokorraren erabakietan parte hartzeko eskubidea. Aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzen ditu.



Zuzendaritza Batzordea

Batzar Orokorrek izendatutako bazkideek osatzen dute. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartu eta egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia. Gaur egun ondorengoek osatzen dute:

- Maddi Etxebarria (Elhuyar Aholkularitza) - Lehendakaria
- Mertxe Mugika (Euskaraz Kooperatiba Elkarte - AEK) - Lehendakariordea
- Maite Asensio (Gipuzkoako Urtxintxa Eskola) - Diruzaina
- Estiñe Astorkia (ARTEZ Euskara Zerbitzua)
- Jasone Mendizabal (Euskaltzaleen Topagunea)
- Josune Etxaniz eta Mikel Irizar (Eusko Ikaskuntza)
- Eider Alustiza eta Anaida Agirre (EMUN Kooperatiba Elkarte)
- Nekane Arratibel (HUHEZI Koop. E. - Mondragon Unibertsitatea)
- Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra) - Idazkaria



BULEGO TEKNIKOAK

Bulego Teknikoaren ardura da Soziolinguistika Klusterraren helburuak, estrategiak eta proiektuak kudeatu eta garatzea. Horiek arduratzen dira, aipatu bezala, Soziolinguistika Klusterraren helburu, estrategiak, ikerketa, garapen eta berrikuntza nahiz ezagutza kudeatzeko proiektuak kudeatzeaz. 2019an 9 lagun izan dira bulegoko kide:

- Olatz Altuna Zumeta
- Uxo Anduaga Berrotaran
- Asier Basurto Arruti
- Olatz Bengoetxea Manterola
- Isabel Godinez Hidalgo
- Maialen Iñarra Arregi
- Imanol Larrea Mendizabal (Zuzendaria)
- Eider Gurrutxaga Larrañaga (bekaduna)
- Pablo Suberbiola Unanue
- Belen Uranga Arakistain

Euskara biziberritzeko erronkei erantzuten dieten 30 egitasmo

PROIEKTUAK

01. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Udalerrri mailako analisia	8 or.
02. Hitzun gazteen hizkuntza praktiken, bizipenen eta diskurtsoen azterketa	9 or.
03. Euskararen Adierazle Sistema (EAS).....	10 or.
04. Arrue Proiektua	11 or.
05. Izaskun Arrue Proiektua	11 or.
06. Gipuzkoako Hizkuntzen Mapa.....	12 or.
07. Uda Ikastaroa: Immigrazioa eta hizkuntza-aniztasuna: harrera integralaren bila ..	13 or.
08. Euskaraldiaren ikerketa.....	14 or.
09. XI. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia: Euskaraldia aztergai	15 or.
10. Hizkuntzen Erabileraren Neurketa Bereziak	16 or.
11. Hizkuntzen Erabileraren Neurketak EHUn.....	16 or.
12. Kirol-jardueretan Hizkuntzen erabileraren neurketa. Oarsoaldea..	17 or.
13. Arabako jolas-txokoetan euskararen diagnosia	17 or.
14. Eibarko familien hizkuntza-egoeraren diagnosia	18 or.
15. Eralan5.....	18 or.
16. Aldahitz Ikerketa.....	19 or.
17. Eusle Hezkuntzan	20 or.
18. Hizkuntza-ohiturak Osakidetzan	20 or.
19. D ereduko kirola ikerketa ekintza proiektua	21 or.
20. Jendaurrean Erabili	22 or.
21. Gipuzkoa Berdinago	23 or.
22. Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa.....	24 or.
23. Berba-lapiko	25 or.
24. Berbekin.....	26 or.
25. Hitanoa lantzeko egitasmoa (Azpeitia eta Zumaia)	27 or.
26. Ahozkotasuna: prestakuntza-saioak eta tailerrak.....	28 or.
27. Ibili	29 or.
28. Txillardegia-Hausnartu Soziolinguistika Sariak.	30 or.
29. BAT Soziolinguistika Aldizkaria.....	31 or.
30. Soziolinguistika Albistaria	32 or.

01

*Hizkuntza erabilera
eta bestelako adierazle
soziodemografikoen
azterketa estatistiko
sakona.*

Koordinatzaileak | Olatz
Altuna eta Imanol Larrea
Partaidea | Natxo Sorolla
(Universitat Rovira i Virgili)



Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak

Udalerri mailako analisia
Laburpena eta ondorioak

Natxo Sorolla Viala
Olatz Altuna Zurieta
Imanol Larrea Imanol Larrea



Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Udalerri mailako analisia

Soziolinguistika Klusterrak urte asko daramatza euskararen erabilerari buruzko datuak jasotzen. Azken urteotan ehun bat herrietako kaleetako datuak bildu ditugu, zehaztasun handiz. Datu multzo handi horren interpretazioan sakontzeko aukera eta beharra ikusi zen eta helburu hori betetzera asmoz abiatu zen ikerlan hau 2018 urtearen hasieran. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore soziolinguistikoen eta soziodemografikoen azterketa egin da. Azterlan honek hurbilpen estatistiko kuantitatibotik heldu nahi dio euskararen erabilerarekin lotzen diren faktoreen identifikazioari. Horretarako, hainbat aldagai soziolinguistiko eta soziodemografiko baliatu dira. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) herriak dira analisi-unitatea, eta horien kaleko erabilera-portzentajeak eta etxe-giroko erabilera-portzentajeak dira ikerketaren ardatza.

2019an proiektua borobildu da, emaitzen txostena osatu da eta aurkezpeneak egin dira; alde batetik arlo aplikatuan dabiltzan eragileei (Soziolinguistika Klusterraren bazkideak, administrazioa...) eta bestetik, gizarte zabalari. Proiektu honetan identifikatutako interes guneetatik sortu da, halaber, gazteen hizkuntza erabileraren gakoetan sakontzeko egitasmoa.



➔ <http://www.soziolinguistika.eus/erabilerafaktoreak>

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



02

Hiztun gazteen bizipen eta diskurtsoetatik beraien hizkuntza-erabileraren gakoak ulertzeko hurbilpena.

Zuzendaria | Jone Miren Hernandez (EHU)

Koordinatzaileak | Olatz Altuna eta Maialen Iñarra

Partaideak | Iñigo Beitia, Ainara Santamaria, Josu Ozaita (EHU)

Hiztun gazteen hizkuntza praktiken, bizipenen eta diskurtsoen azterketa

Gazteen euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak izan dira aztergai, ikuspegi kualitatibotik, lau udalerritan. Zehazki, euskararen erabileraren inguruko diskurtsoa eraikitzeo aukera eman zaie gazteei, mugarik gabe, euren interes eta esperientziatik.

Hiru erabilera “mota” bereizi dira: 1) Erabilera ideologikoa: euskara gizartean jartzen duena 2) Erabilera kokatua: espazio jakinetan euskararen erabileraren legitimazioa –edo legitimazio eza- aztertzen duena. 3) Erabilera bizitua: erabilera sentitua eta performatua, hau da, hizkuntza eta identitatea lortzen dituen.

Hiru dimentsioetan euskarak duen presentzia/ausentzia aztertu da, hainbat galderatan oinarrituz: Zer diskurtso dute gazteek euskararen inguruan? zein iritzi dute euskalgintzari edota hizkuntza politikari buruz? non dago euskara euren eguneroko praktiketan eta eurentzako erreferente diren esparruetan? zein praktikek eta harremanek ahalbideratzen dute euskararen presentzia handiagoa? zein lotura dute gazteek euskararekin, euren barne elkarriketetan, euren mundu emozionalean, euren burua definitzeko eta agertzeko moduan?

➤ <http://www.soziolinguistika.eus/hiztungazteak>

Babesleak:

- Zumaiaiko Udala
- Pasaiaiko Udala
- Gernikako Udala
- Amorebieta Etxanoko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurilaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



03

*Euskarak gizartearen
esparru desberdinetan
duen egoera
soziolinguistikoa
deskribatzeko adierazle
kuantitatibo nagusiak
biltzen dituen tresna.*

Euskararen Adierazle Sistema (EAS)

Proiektuak ibilbide luzea eta oparoa du. Egitasmoaren aurreprestatketa, antolaketa, diseinu eta garapen teknikoa egin zen 2013 eta 2017 artean. Ordutik webgunea sortu eta elikatu da. Gaur egun 42 adierazleren informazioa eskaintzen da.

Soziolinguistika Klusterrak orain artean egitasmoan izan duen parte hartzeari segida emanez, 2019an ere, Euskararen Adierazle Sistema garatzeko aholkularitza teknikoa eman du. 2019an lau adierazle berri gehitu dira eta egitasmoa gizarteratzeko komunikazio estrategia diseinatu eta aplikatu da. Webgunea berritu da erabilerraztasuna eta erakargarritasunaren mesedetan. Adierazle berriak udalerrri mailan xehetuta eskuratu ahal izango dira, besteak beste. Gainera, 2018ko urtekaria eta aldizkari digitala sortu dira, proiektuaren garapenaren berri emateko.

Koordinatzailea | Olatz Altuna Partaideak |

- Eusko Jaurlaritza
- Euskarabidea
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia



➔ <http://www.soziolinguistika.eus/euskararenadierazlesistema>

Babeslea:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



04

*EAEko ikasleen
eskola-giroko
hizkuntza-erabilerak
aztertzen dituen
ikerketak-proiektua.*

Zuzendaria | Iñaki Martínez
de Luna

Koordinatzaileak | Pablo
Suberbiola eta Belen Uranga

Partaideak |

- Iñigo Barruso, Ibon Olaziregi
eta Lucia Torrealday (Eusko
Jaurjaritza. Hezkuntza Saila)
- Xabier Aizpurua eta Eduardo
Ubieta (ISEI)
- Josune Zabala (Eusko
Jaurjaritza. Hizkuntza
Politikarako Sailburuordetza)
- Iñaki Garcia (Euskal Herriko
Unibertsitatea)

Arrue Proiektua

2011-2017 arteko datuen gainean eginiko analisiari itxiera eman zaie 2019. urtean zehar, azterketa horien behin betiko txosten tekniko eta exekuti-boak osatuz. Bi urtean behingo maiztasunari jarraituz, EAE osoko ikasleen datuen analisi zabala egin da. Horrez gain, gai zehatzen gaineko bi analisi osagarri egin dira. Bata irakasleen arteko hizkuntza-erabileraren inguruan (D eredurako soilik), eta bestea LH4tik DBH2ra ikasleen euskarazko hizkuntza-erabileretan ematen den atzerakadaren inguruan (hizkuntza-mudantzen ikuspegitik).

Bestalde, haien ezaugarri soziolinguistikoak kontuan izanik, ikasleen eskolako hizkuntza-erabileretan nabarmentzen diren ikastetxeen azterketa sakonagorako aukerak landu dira. Bi ikasturtetan zehar garatuko den ikerketa-ildo berria diseinatu da (2019-2020 eta 2020-2021), eskoletan euskararen erabilera indartzen duten ezaugarriak aztergai izango dituen.

➤ <http://www.soziolinguistika.eus/arrue>

Babeslea:

- Eusko Jaurjaritza, Hezkuntza Saila



05

*Nafarroako ikasleen
eskola-giroko
hizkuntza-erabilerak
aztertzen dituen
ikerketak-proiektua.*

Zuzendaria | Iñaki Martínez
de Luna

Koordinatzailea | Maialen
Iñarra

Izaskun Arrue Proiektua

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamenduaren Ebaluazio Diagnostikoan, 2019ko otsailean, lehen aldiz jaso dira Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztien eskola-giroko hizkuntza-portaerei buruzko datuak. Izaskun Arrue proiektuan datu horien azterketa zabala egin da, ikasleek aitorturiko hizkuntza-erabileraren datuak bestelako aldagai ugarirekin gurutzatuta. EAEn ibilbide luzea duen ARRUE ikerketan erabilitako metodologia berbera jarraituz aztertu dira. Hala, eskuratutako emaitzak EAEko ikasleekin alderagarriak dira (Ikus datuak EASen).

➤ <http://www.soziolinguistika.eus/izaskunarrue>

Babeslea:

- Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

 euskarabidea

06

*Gipuzkoako
lurraldean dagoen
hizkuntza-aniztasuna
xeheetasunez deskribatzen
duen tresna.*


Zuzendaria | Xabier Aierdi
Koordinatzailea | Belen Uranga
Partaideak | Beñat Egües
(Gipuzkoako Foru Aldundia),
Itxaso Telleria (Emun), Jon
Abril (Elhuyar), Jurdana Martin
(Topagunea)

Gipuzkoako Hizkuntzen Mapa

EUSTAT-eko datuak aztertuz Gipuzkoako biztanleen jatorriaren gaineko datuen bidez identifikatu da lurraldeko hizkuntza-aniztasuna. Ez dagoe-nez hizkuntzari buruzko datuak jasotzen dituen protokolorik ezarrita, bi hipotesirekin jokatu da. Batetik, biztanleek beren jatorrizko lurraldeetako hizkuntza ofizialak hitz egingo dituztela; bestetik, beti horrela izaten ez dela eta lurraldeko beste hizkuntza bat(zuk) hitz egin dezaketenaren hipotesia.

Aldi berean, migrazioen joera nagusiak eta ezaugarriak aztertu dira (banaketa geografikoa, kopurua, dentsitatea, sexuaren eta adinaren arabera banaketa, feminizazioa...). Horrez gain, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa egokiaren aldeko illoak proposatu dira, harrera-protokolorako lehen urratsak emateko bidea egin da.

Datuak eguneratu, webgunean antolatu eta publikoki aurkeztu dira 2019 urtean zehar.



- <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaberdintasuna/gipuzkoakohizkuntzak>
- <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/bizikidetz/gipuzkoakohizkuntzak>
- <http://www.soziolinguistika.eus/gipuzkoakomapa>

Babeslea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia

07

Uda Ikastaroa: “Immigrazioa eta hizkuntza-aniztasuna: harrera integralaren bila”

Ikastaroaren helburu nagusia Gipuzkoako immigrazioko populazioaren hizkuntza-aniztasuna ezagutzera ematea da, lurraldean duen banaketaren arabera; eta euskararen biziberritze-prozesua kontuan hartuta hizkuntza-kudeaketa egokia, demokratikoa eta justizia sozialean oinarritutakoa proposatzeko harrera integrala definitzea.

Ikastaroa ekainaren 20 eta 21ean izan zen, Donostiako Miramar Jauregian. Honakoak izan ziren hizlariak eta mahai-inguruetako parte hartzaileak:

- Xabier Aierdi Urraza (*Gipuzkoako hizkuntzen mapa proiektuaren zuzendaria*)
- Belen Uranga Arakistain (*Soziolinguistika Klusterra*)
- Eduardo Ruiz Vieytes (*Deustuko Unibertsitatea*)
- M. Dolores Lopez Fernández (*Ajuntament de BCN - Comissionada d'Immigració, Interculturalitat i Diversitat*)
- Petra Elser Elser (*Banaiz Bagara elkarte*)
- Alina Rocio Blanco Barros (*Emigrados sin fronteras*)
- Julia Shershneva (*EHU/UPV Soziologia eta Gizarte Langintza*)
- Silvia Carrizo Fernandez (*Malen Etxea elkarte*)
- Samira Goddi Mendizabal (*Errenteriako Udala*)
- Agustin Unzurrunzaga (*SOS Arrazakeria*)
- Maribel Vaquero Montero (*GFA- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendari Nagusia*)
- Garbiñe Mendizabal Mendizabal (*GFA- Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaria*)
- Olatz Irizar Martinez (*EMUN*)
- Idoia Aldekoa Ondarra (*Elhuyar*)
- Jurdana Martin Retegi (*Euskaltzaleen Topagunea*)



➤ <http://www.soziolinguistika.eus/immigrazioaikastaroa>

08

2018ko Euskaraldiak herritarren hizkuntza-ohituren aldaketan nolako eragina izan duen aztertzeko ikerketa-proiektua.

Euskaraldiaren ikerketa

Eusko Jaurlaritzaren ekimenez egindako ikerketa honetan bi ikerketa-ildo jorratu dira: kuantitatiboa eta kualitatiboa. Horietako lehenean Euskaraldian parte hartu dutenen hizkuntza-ohituren aldaketa neurtu da. Posta elektronikoz bidali diren hiru inkesta baliatu dira horretarako, eta guztira 18.383 lagunen emaitzak jaso dira. 2019. urtean, bildutako datu horien analisia burutu da, eta hizkuntza-praktiken bilakaera eta Euskaraldiak horriengan izan duen eragina eman da argitara.

Ikerketa-ildo kualitatiboan, herritarrek ekimenaren inguruan garatu dituzten iritziz eta bizipenak jaso dira. Hogei herriko lagina osatu eta bertako herritarren testigantzak bilduz egin da lan hori. Ikerketa-ildo honetan, 453 lekukotza jaso dira orotara, eta horien guztien analisia eta diskurtso nagusien identifikazioa burutu da.

Ikerketatik ateratako emaitza eta ondorio guztiak dagokion euskarrietan jasota geratu dira (txostenak, bideoak...) eta Euskal Herriko zein nazioarteko hainbat gunetan aurkeztu dira.

Zuzendaria | Pello Jauregi (EHU)

Koordinatzailea | Uxo Anduaga

Partaideak |

- Euskararen Erakunde Publikoa
- Euskaltzaleen Topagunea
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskarabidea
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza



➤ <https://euskaraldia.eus/2018-ikerketa/>
➤ <http://www.soziolinguistika.eus/euskaraldia-ikerketa>

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Nafarroako Gobernua, Euskarabidea
- Kutxa Fundazioa

09

Euskararen biziberritzearekin loturiko soziolinguistikaz hausnartzeko, eztabaidatzeko, ezagutza partekatzeko eta proposamen berriak egiteko urteroko zita.

Antolatzaileak | Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

Koordinatzaileak | Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra) eta Ander Gartzia (Eusko Jaurlaritzako)

Laguntzaileak | Tolosako Udala eta Euskaltzaleen Topagunea

XI. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia: Euskaraldia aztergai

Soziolinguistika Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak elkarlanean antolatuko dute Euskal Soziolinguistika Jardunaldiaren hamaikagarren edizioa.

Euskaraldia euskararen biziberritzeari begira martxan jarritako ekimen berritzailea eta zabala izan da. Milaka herritarrek zuzenean parte hartu dute hizkuntza-ohituretan eragiteko ariketa sozial erraldoian. Gainera, hamarnaka erakunde, elkarte, entitate eta batzorderen arteko elkarlanari esker izan zen posible ekimena. Emaitzak mahai gainean jarri eta hobe-kuntzarako ikasgaiak ateratzea helburu hartuta eskaini zaio gaiari 2019ko Euskal Soziolinguistika Jardunaldia, urriaren 9an Tolosako Topic zentroan egin dena.

Egitaraua gaiaren gaineko formatu anitzeko hainbat saiok osatu zuten:

- Euskaraldiaren ikerketa: emaitzen aurkezpena – Pello Jauregi eta Uxoa Anduaga
- Euskaraldiari buruzko beste Ikerketak
 - Euskaraldia zenbakitan (Parte Hartzea) – Gaindegia
 - Nerabeak Euskaraldian (Lasarte Oria) – Ebete
 - Aktibaziorako gakoak Euskaraldian – Soziolinguistika Klusterra
- Tailerrak: emaitzen azterketa elkarlanean
- Panela: Euskaraldiaren ondorioei eta ikasgaiei hiru begirada
 - Paula Kasares
 - Josu Amezaga
 - Garikoitz Goikoetxea



➤ <http://www.soziolinguistika.eus/euskaraldiaaztergai>

10

*Udalerrietan kaleetako
hizkuntza-erabilera
zenbatekoa den
kuantifikatzen duten
ikerketak.*

Koordinatzaileak | Belen
Uranga, Olatz Altuna eta
Maialen Iñarra

➤ [http://www.soziolinguistika.eus/
herrietako_neurketak](http://www.soziolinguistika.eus/herrietako_neurketak)

Hizkuntzen Erabileraren Neurketa Berezia

“Zenbat erabiltzen da euskara kalean?”, galdera horri erantzuten dio ikerketak. Hain justu ere, kaleko erabileraren datuek berebiziko garrantzia dute herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko. Erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, eta metodologia findua eskatzen du.

Helburu horri erantzuteko asmoz sortu eta garatu zen hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia, eta Soziolinguistika Klusterraren sorreratik aritu gara hizkuntzen erabileraren kale-neurketak egiten. Dagoeneko ehundik gora dira inoiz neurketa burutu duten herriak; areago, gero eta gehiago dira maiztasun jakin batekin neurketa errepikatzen dutenak, euskararen erabileraren bilakaera gertutik jarraitu ahal izateko.

2019an honako herri hauetan egin da kale-neurketa: Lezon, Zornotzan eta Bortzirietan.

Horrez gain, herri bateko kaleak ez diren bi eremu berezitan egin dira erabilera-neurketak. Batetik, Doneztebeko ikastetxean eta bestetik EuskarAbentura espedizioan.

Babesleak:

- Lezoko Udala / - Zornotza Udala
- Bortzirietako Euskararen Mankomunitatea
- Doneztebeko Udala
- EuskarAbentura



11

*EHUko hiru campusetako
bina fakultatetan behaketa
bidez egindako hizkuntza
erabileraren neurketa.*

Antolatzaileak |
Soziolinguistika Klusterra eta
Euskal Herriko Unibertsitatea
Koordinatzaileak | Belen
Uranga

Hizkuntzen Erabileraren Neurketak EHU

EHU-k unibertsitateko euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin abian duen “Aktibatu” proiektuaren baitan, fakultate desberdinetan hizkuntzen erabilera neurtzeko proiektua abiatu zen 2018an. 2019an jarraipena eman zaio ikerketa-ildoari bi helburu nagusirekin: alde batetik, aurretiaz ezagututako fakultateetako bilakaerari jarraipena egitea, eta beste fakultate batzuetan datu-bilketak egitea. Beraz, 2019an hiru campusetako Hezkuntza Fakultateetan, Arabako Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean, Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Fakultatean eta Donostiako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean egin dira erabilearen neurketak.

Babesleak:

- Euskal Herriko Unibertsitatea



12

Oarsoaldeko hiru udalerritako kirol klubetan behaketa bidez egindako hizkuntza-erabileraren neurketa.

Antolatzaileak | Soziolinguistika Klusterra eta Oarsoaldeko Euskara Zerbitzua
Koordinatzaileak | Belen Uranga, Olatz Altuna

Kirol-jardueretan Hizkuntzen erabileraren neurketa. Oarsoaldea

Oarsoaldeko hiru udalerritan (Oiartzun, Lezo eta Pasaia) maiz egin ditu Soziolinguistika Klusterrak hizkuntzen erabileraren kale-neurketak. Proiektu honekin, ordea, eskualdeko kirol-klubetako hizkuntzen erabileraren berri jaso nahi izan da.

Helburu horrekin, eta kale-neurketan erabiltzen den metodologia ego-kituz, eskualdeko kirol-klubetako hainbat talderen jarduera behatu da. Horietako bakoitzean entrenamenduetan parte hartzen duten ikasle, entrenatzaile edota laguntzaileen hizkuntzen erabilera datuak bildu dira.

Behatu diren kirol-jarduerak honakoak izan dira:

- Oiartzunen: futbola, pilota, saskibaloia eta dantza
- Lezon: saskibaloia, futbola eta pilota
- Pasaian: piraguismoa, arraunketa, hockeya eta futbola.

Babeslea:

- Oarsoaldeko Euskara Zerbitzua



13

Arabako aisialdi-gune publikoetan (jolas-txokoetan, ludoteketan eta gazte-lekuetan), euskararen egungo egoera ezagutzeko ikerketa.

Koordinatzailea | Olatz Altuna

Arabako jolas-txokoetan euskararen diagnosia

Ikerketaren helburua aisialdian euskararen sustapena gaur egun nola-koa den ezagutzea da, aurrera begira sustapen lan hori sendotzeko eta neurri eraginkorrak hartu ahal izateko. Informazioa eskuratzeko baliatu den metodologia inkesta izan da: online galdetegi bat betetzeko eskatu zaie txokoetako kudeatzaileei eta begiraleei. Orotara berrogeita zortzi gu- nek (jolas-txoko, ludoteka edo gazte-leku) osatu dute galdetegia. Askok nabarmendu dute euskararen hedapena eta sustapena dutela helburu nagusizat.

Babeslea:

- Arabako Foru Aldundia



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

14

*Eibarko familien
hizkuntza-egoera
diagnostikatzeko ikerketa
kuantitatiboa.*

Koordinatzailea: | Olatz Altuna

Babeslea:

- Eibarko Udala



Eibarko familien hizkuntza-egoeraren diagnostia

Eibarko familien hizkuntza-egoeraren diagnostia egiteko AKEBAI plataformako Familia eta Transmisioaren mahaiak galdeketa bat egin du, Lehen Hezkuntzako bigarren mailan (LH2), bosgarren mailan (LH5), eta Bigarren Hezkuntzako bigarren mailan (DBH2) ikasten ari diren haur eta gazte-txoen artean. AKEBAI plataformak osatu du galdetegia eta koordinatu du datu-bilketa. Datuen ustiaketa eta emaitzen txostena Soziolinguistika Klusterrak burutu du.

15

*Enpresen eta erakunde
euskararen erabilera
berrikuntza sozialaren
bidetik sendotzeko gida.*

Zuzendaria | Auxkin Galarraga
(Euskal Herriko Unibertsitatea)

Koordinatzailea | Belen Uranga

Partaidea | Nekane Jauregi
(Gipuzkoako Foru Aldundia),
Alberto Telleria (Eusko Jaurlaritza
- HPS), Juanjo Ruiz (Emun), Juanjo
Perez (Elhuyar), Mikel Urdangarin
eta Nerea Ibarluzea (AEK-Ahize),
Leire Solozabal (Artez)

Eralan5

Eralan egitasmoa lan-munduan euskararen erabilera sendotzeko helburuarekin jarri zen abian 2008an. EPEsA metodologiaren bidez lan-munduko hizkuntza lidergoa eta liderren portaera eredugarriak aztertuz ditu lau fase desberdinetan. Bosgarren fasean, berrikuntza eta erantzukizun sozialaren bidetik euskararen erabilera indartzea du xede. Helburu hori lortzeko lagungarri izango den gida diseinatzea izan da 2019ko egiteko nagusia.

Gidaren bitartez, enpresa edota erakundearen eremu kulturalan aldaketak sortu nahi dira, baliabide objektiboak eta subjektiboak ezagutzuz eta haietan eraginez. Euskara erdigunean izango duen hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa-eredu aurreratua proposatuko da. Euskararen inguruko sinesmenak, irudikapenak, ikusmoldeak eta balioak ezagutzeko eta erabileran fokalizatze ahalegina egingo da. Aldi berean, enpresaren eremu sozialean eragin nahi da, arreta berezia jarritz, pertsonen, talentuaren eta funtzioen kudeaketa-eredu aurreratu eta berritzaileari.

➔ <http://www.soziolinguistika.eus/eralan5>

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



16

*Hizkuntza-ohituren
aldaketa-prozesuen
gaineko lanketa teorikoa
eta aplikazio praktikoa
uztartzeko dituen
lan-ildoak.*

Zuzendaria | Pello Jauregi (EHU)
Koordinatzailea | Pablo
Suberbiola

Partaideak | Nekane Jauregi
(GFA), Sonia Isasi (HPS), Nerea
Mandiola (Artez), Nerea Ibarluzea
(Ahize-AEK), Ainara Ibañez
(Elhuyar), Kristina Pavo (Emun)

Aldahitz Ikerketa

2019. urtean zehar urratsak eman dira hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak errazteko sistema integrala osatzeko norabidean; azpimarra nagusia jarritz Ulerrizketa metodologian.

Aurreko urteetan proba pilotuak egin ondoren, 2019ko urrian publiko egin da Ulerrizketa metodologiari buruzko materiala. Metodologia hori aplikatu nahi duenaren esku jarri da horetarako informazio osatua eta hainbat baliabide: argitalpen elektronikoa, bideo tutorialak, azken urteetan lantokietan halako esperientziak egin dituzten lankideen lekukotza-bideoak

Horrez gain, Eusle eta Ulerrizketa metodologiei buruzko mintegia egin zen Gasteizen, teknikari eta profesionalei metodologia horiek ezagutarazteko eta horietan sakontzeko aukera eskainiz.

Azkenik, Aldahitz proiektuaren webgunea berritu da, hizkuntza-ohiturak aldatzeko sistema integralaren lojikan antolatuz bertako edukiak.



➔ <http://www.soziolinguistika.eus/aldahitz>

Babesleak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

17

Ikastetxeetan ikasleen euskarazko erabilera bultzatu asmoz Eusle metodologia egokitzeko proiektua.

Zuzendaria | Pello Jauregi (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Koordinatzailea | Pablo Suberbiola

Partaideak | Iñigo Barruso, Ibon Olaziregi, Agus Mujika, Itziar Lafuente, Iñaki Biain, Markos Bilbao, Montse Soria eta Joseba Ibarretxe (Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila), Iñaki Eizmendi (Ebate), Eneko Etxegarai eta Inma Arteta (Toki Eder Ikastola), Iñaki Portilla eta Fernando de Lera (Lauro Ikastola), Idoia Fraile eta Olatz Aldabe (Lezo Herri Eskola)

Eusle Hezkuntzan

Eusle Hezkuntzan proiektuak Arrue Proiektuaren eta Aldahitz proiektuarekin lotura du. Hizkuntza-ohituretan eragiteko Eusle metodologia hezkuntzaren eremuan erabiltzeko bi egokitzapen lantzen ari dira proiektu honeta: bata Lehen Hezkuntzan erabiltzeko (Jostaketan) eta bestea DBHn erabiltzeko (Errobi).

Lehen Hezkuntzan, Jostaketan metodologiaren proba pilotua egin da hiru ikastetxetan: Toki Eder Ikastola (Araba), Lauro Ikastola (Bizkaia) eta Lezo Herri Eskola (Gipuzkoa). Lehen aplikazio horren ebaluazioa egin da, hobetu beharreko puntuak identifikatu eta bigarren bertsio baterako oinarriak landu dira (2020an probatzeko).

DBHn, ikasleen arteko euskarazko erabilera areagotzeko metodologia sortu da, irakasleak ere inplikatzeko dituenak: Errobi. Metodologia horren proba pilotua ikastetxeetan egiteko prestaketak egin dira (2020an probatzeko).

➤ <http://www.soziolinguistika.eus/eusle-hezkuntzan>

Babeslea:

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila



18

Lankideen arteko hizkuntza-ohituretan esku hartze esperientzien eta formazioaren bidez euskararen aldera eragiteko proiektua.

Zuzendaria | Pello Jauregi (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Koordinatzailea | Pablo Suberbiola

Partaideak | Xabier Arauzo, Eguzkiñe Gezuraga, Alazne Iturriotz, Ander Manterola, Ander Zuloaga, Garbiñe Garai, Garbiñe Loiarte, Irene Gil, Leire Sagastizabal eta Ramon Fullaondo (Osakidetza)

Hizkuntza-ohiturak Osakidetzan

2018an abiatu zen Aldahitz Proiektuko Ikerketa taldearen eta Osakidetza-ko Euskara Zerbitzuaren artean.

Aldahitz-en hizkuntza-ohiturak aldatzeko sorturiko metodologiak hartu dira abiapuntu. 2018an eginiko Eusle metodologiaren lau esperientzien datuak aztertu eta ondorioak atera dira. Horrez gain, esku hartze esperientzia berriak antolatu dira.

Eusle metodologiaren esperientziez gain, Ulerrizketa metodologian oinarritutako esku hartze esperientziak antolatu dira bost osasun zentroan. Azkenik, Osakidetza-ko ezaugarrietara egokituriko "Biko eusle" metodologiaren proba pilotuak egin dira (bi esperientzia).

Formazioa ere eman zaie gai hauetan bertako teknikariei, Garapen Talde-ko saioetan eta bai berariaz antolaturiko saioen bidez.

➤ <http://www.soziolinguistika.eus/hizkuntza-ohiturak-osakidetza>

Babeslea:

- Osakidetza



19

*Aisialdiko kirolaren
eremuan haur eta
gaztetxoek euskarazko
sozializazioaren eremuko
ikerketa eta esku hartze
esperimentalak*

D ereduko kirola ikerketa ekintza proiektua

Proiektu honen ibilbidearen lehen zikloan gaiari buruzko ikerketa-ekintza egitasmoa garatu da. Itxiera gisa, alde batetik, hiru urteko ikerketa-ekintzaren emaitzak laburtzen dituen argitalpena aurkeztu da; eta bestetik, proiektuan parte hartu eta lagundu duten erakunde eta kideentzat itxiera-eskertza ekitaldia egin da (Real Sociedad futbol taldearen Zubietako instalazioetan).

Ondoren, 2016-2018 lehen zikloaren ondorioak kasu praktikoetan aplikatzeko lehen urratsak eman dira Gipuzkoako bi kirol taldetan: Aretxabaletako UDA eta Real Sociedad. Bestetik lan-ildo honen ziklo berri bat osatzeko (2020-2022) diseinu lanak egin dira.

Zuzendaria | Jone Miren Hernández (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Koordinatzaileak | Pablo Suberbiola eta Maialen Iñarra

Partaideak | Jaime Altuna (EHU), Begoña Basterretxea (EJ-HPS), Nekane Jauregi eta Beñat Egues (GFA-HBZ), Maite Asensio (Urtxintxa Eskola), Sonia Perez (Euskaltzaleen Topagunea), Eñaut Kortabarria eta Agurtzane Elkoro (UDA), Ane Lore Estala (Aretxabaletako Udala), Andoni Iraola, Xabier Abascal eta Luki Iriarte (Real Sociedad)



➤ <http://www.soziolinguistika.eus/Deredukokirola>

Babeslea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

20

Komunikazio publiko eraginkorragoa eta hizkuntza-praktika egokiagoak izateko elkarlanean diharduten erakundeen praktika-komunitatea.

Zuzendaria | Beatriz Zabalondo
(Euskal Herriko Unibertsitatea)

Koordinatzailea | Asier Basurto

Partaideak |
Eduardo Apodaka,
Idurre Eskisabel eta Irati Agirreazkuenaga (EHU)

Jendaurrean Erabili

2019an, erakunde bakoitzak bere barne-erronkei heldu die. Horrez gain, praktika komunitateko erakundeen artean bisitak egin dira besteen errealitatea (lantaldeak, lantokiak, funtzionamenduak eta praktikak) gertutik zuzenean ezagutzeko. Formazioari dagokionez, hainbat gai eta proiekturi buruzko hitzaldiak jaso dituzte Jendaurrean Erabiliko kideek:

- Eusko Ikaskuntzaren E5 proiektua (J. Inazio Marko)
- Hedabideak eta euskara (Josu Amezaga)
- EITBren etorkizunaz soziolinguistikaren talaiatik (Kike Amonarritz)
- Nazio markagintza, nola transmititu gure balioa (Naroa Jauregizuria)
- Euskaraldia 2020 (Rita Aldabaldetrekue)

Komunitatea elkarrekin egiten ari den bidetik, ikerketa-taldea ikasgaiak ateratzen ahalegintzen da. 2019an, komunikazio publikoa egiten duten denetarik erakundeen eta komunikazio horren bitartekari diren hedabideen arteko harremanaren inguruko ikerketa amaitutzat eman da. Praktika-komunitateko erakundeen arteko eztabaida saioak eta hainbat hedabideetako zuzendari, erredaktore buru eta arduradunen elkarriketak izan dira oinarrian. Erakundeek eta hedabideek, beren hizkuntza-irizpide eta praktikekin bata bestearen jardunean nolako baldintzapena suposatzen duten aztertu da ikerketan.

➤ www.soziolinguistika.eus/jendaurreanerabili

➤ www.jendaurrean.eus



Babesleak:

- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

21

Gipuzkoako 18 erakunderen bide partekatua, beren komunikazio publikoan hizkuntzen erabilera gizartearen baldintzei eta beharrei egokitzeko urratsak emateko, gizartearen hizkuntza berdintasunerantz ekarpena egin nahian.

Koordinatzailea | Asier Basurto

Partaideak | Nekane Jauregi, Elene Arrazola, Joxean Amundarain eta Garbiñe Mendizabal (GFA)

Gipuzkoa Berdinago

Erronka bateratua izan da 2019ko Gipuzkoa Berdinagoko dinamika nagusia. Erakunde bakoitzean barne-mailako bilkura eta batzar handiak egiten direla identifikatu da. Hizkuntza-kudeaketa aldetik konplexutasun handiko ekitaldiak izaten dira, ahozkoa eta idatzizkoa nahasten dutelako, eduki desberdinak barnebiltzen dituztelako, hizlari desberdinek parte hartzen dutelako, parte hartzaileen artean hizkuntza-gaitasun aldetik profil desberdina duten pertsonak elkartzen direlako... Ekitaldi horiek dira erakundeen batzar nagusiak, akziodunen batzararak, bazkideen asanbladak, ikasurte hasierako ekitaldiak...

Lehendabizi, erakunde bakoitzean ezaugarri horiek betetzen dituen ekitaldia zein izango litzatekeen identifikatu zen. Ondoren, definitu zuten ekitaldi horietan zein aurrerapauso ematea finkatu zitekeen erronkatzat. Bigarren buelta batean erronka horiek zehazteko ariketa egin zen. 2019ko iraila eta 2020ko uztaila artean erakunde bakoitza finkatutako ekitaldian bere erronkak gauzatzen ari da.

Proiektuaren komunikazio ekintza nagusia 2019an, lan-jardunaldi irekia izan da. Abenduaren 16ko goizean zehar Etorkizuna Eraikiz Gunean Gipuzkoa Berdinagoren orain arteko ibilbidea azaldu zen, 2019ko erronka bateratua zertan datzan eta erakundeetako kideek nola bizi izan duten komunikatu zuten zenbait kidek eta hizkuntzen kudeaketa eredu konplexu eta arrakastatsu baten eredu bezala TV3eko hizkuntza-aholkularitza lantaldearen hitzaldia izan zen.



➤ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaberdintasuna/gipuzkoa-berdinago>

Babeslea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia

22

*Euskararen inguruan
herritarren aktibazioarako
gakoak identifikatzeko
eta balizko prozesua
proposatzeko
ikerketak-proiektua.*

Zuzendaria | Zesar Martinez
(Euskal Herriko Unibertsitatea)

Koordinatzaileak | Maialen
Iñarra eta Imanol Larrea

Partaideak |

- Helene Armentia (Elhuyar)
- Amaia Balda eta Ainhoa Lasa (Emun)
- Mikel Ozaita (Euskaltzaleen Topagunea)
- Joxean Amundarain (Gipuzkoako Foru Aldundia)



Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa

Proiektuak hiru fase izan ditu eta 2019koa hirugarrena izan da: Euskaraldia ekimena tokian toki martxan jartzeko antolaketa-moduak aztertu dira. Euskaraldiak herritarrak aktibatzeke balio izan duenez, honako ikerketa-galdera hauei erantzun nahi izan zaie: zer erakutsi digu Euskaraldiak aktibazioari buruz? Herritarren aktibazioari dagokionez, Euskaraldiak zer aurrerapauso eta zer muga ditu? Eta zer faktorek eragiten dute horretan?

Hala, Gipuzkoako bost herritan (Arrasaten, Ikaztegieta, Donostia, Errenteria eta Hondarribia), Euskaraldiak izan duen antolamendua aztertu da, antolatzaileekin elkarrizketak eta tailerrak bideratuz.

2015. urte amaieran abiatutako ikerketaren hiru faseak burutu ostean, herritarren hizkuntza-aktibazioarako prozesua marraztu eta proposatu da, eta zaindu beharreko gakoak zeintzuk diren identifikatu dira.



➔ <http://www.soziolinguistika.eus/aktibazioa>

Babesle-partaideak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia, Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia

23

Testuinguru erdaldunetako ikasleen ahozko konpetentzietan eta irakasleen prestakuntzan aurrera egiteko garapen metodologikoa.

Berba-lapiko

Programaren abiapuntua da hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarrituta eraiki daitekeela. Material berria sortu eta ikasleen komunikaziorako konpetentzietan sakontzen du proiektuak, irakasleen prestakuntzarekin uztartuta.

2019an metodologia berri bat frogatu da eta bi prestakuntza berezitu sortu dira. Testuinguru soziolinguitiko erdaldunetako Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailarako bi hizkuntza-errutina diseinatu dira; eta LH 6. mailarako beste bi sekuentzia didaktiko diseinatu, inplementatu eta baloratu dira.

Zuzendaria | Agurtzane Azpeitia eta Idurre Alonso (Mondragon Unibertsitatea)

Koordinatzailea | Olatz Bengoetxea

Partaideak |

- Rontegi eskola eta Muskizko ikastola
- Monica Calvo, Iñaki Montanchez eta Ana Garcia (Barakaldoko Berritzegunea)
- Isabel Casarez eta Mari Cruz Marcos (Ortuellako Berritzegunea)
- Ibon Manterola eta Leire Diaz de Guereñu (EHUKO ELEBILAB ikertaldea)
- Iñigo Barruso, Ibon Olaziregi eta Lucia Torrealday (Eusko Jaurlaritz. Hezkuntza Saila)



➤ <http://www.soziolinguitika.eus/berbalapiko>

Babeslea:

- Eusko Jaurlaritzako, Hezkuntza Saila



24

Ikasgelan berbazko komunikazioa indartzeko programa.

Berbekin

Eskola-eremuetan, irakaslearen esku hartzearen bitartez euskararen erabilera sustatzeko aukerak aztertzea da proiektuaren helburua. “Edozein irakasle da hizkuntza irakasle” pentsamendua du abiapuntutzat. Identifikatu nahi da zeintzuk ziren esku-hartze egokienak ikasleek euskaraz gehiago eta hobeto egin dezaten.

2019an, ikasgelan euskararen erabilera eta gaitasuna hobetzen laguntzen duten praktika onak finkatzeko eta sistematizatzeko bidea osatu da arlo guztietako irakasleekin elkarlanean. LH3. zikloan eta DBH.1 zikloan gauzatzen da eta arreta berezia jarri da hiru alderditan: batetik, irakasle guztiek ahozko hizkuntzaren mesedetan esku-hartzeko gakoak ezagutzeko; bigarrenik, diseinatutako praktikak gela barruan inplementatzeko; eta hirugarrenik tresna berri bat frogatu eta feedbacka jasotzeko.

Zuzendaria | Ines Garcia-Azkoaga (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Koordinatzailea | Olatz Bengoetxea

Partaideak |

- Aranzadi Ikastola
- Mariaren Lagundia Ikastola
- Estepan Plazaola eta Elixabete Payros (Bergarako Udala)



➤ <http://www.soziolinguistika.eus/berbekin>

Babesleak:

- Bergarako Udala
- Aranzadi Ikastola
- Mariaren Lagundia Ikastola



25

Azpeitiko eta Zumaiaiko gazteen artean hitanoaren erabilera-konpetentziak ezagutarazi, landu eta aberasteko egitasmoa.

Hitanoa lantzeko egitasmoa (Azpeitia eta Zumaia)

Hitanoak euskararen erabilera eta ezagutza izan lezakeen eragin baikorraz jabetuta ekin zitzaion egitasmo honi 2010ean. Lehen fase batean, hitanoa sustatzeko materiala sortu eta probatu zen irakasleekin elkarlanean. 2015ean aurkeztu zen sortutako metodologia eta ordutik aplikatzen da Azpeitian eta Zumaian LHko 5. mailatik DBHko 4. mailara arte. Azken urteetan, egitasmoa ikastetxean finkatzea izan da xedea, proiektuak modu autonomoan jokatzeko asmoz.

Koordinatzailea | Olatz Bengoetxea

Partaideak |

- Maria eta Jose ikastetxea
- Zumaiaiko Herri Eskola
- Oikiako eskola
- Zumaiaiko Institutua
- Zumaiaiko Udala
- Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai
- Iraurgi ikastetxea
- Ikasberri Azpeitiko Ikastola
- Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI
- Azpeitiko Udala



➤ <http://www.soziolinguistika.eus/hitanoa-azpeitia-zumaia>

Babesleak:

- Zumaiaiko Udala
- Azpeitiko Udala

26

Ahozko komunikazioaren lanketarekin lotutako ikastaroak eta mintegiak, hainbat testuinguru soziolinguistikotan eta hainbat helbururekin.

Ahazkotasuna: prestakuntza-saioak eta tailerrak

2019an hainbat formazio eman dira ahazkotasunaren gainean. Arlo honetako proiektuak (Berekin, berba-lapiko...) dira prestakuntza hauen abiapuntua.

IRALEren bidez *13 Ahazkotasunaren lanketa Hizkuntza Normalizazioaren altxotik* formazioa eskaini da: ahazkotasuna ikastetxe bakoitzeko testuinguru soziolinguistikoaren beharrik aztertuta, ahazkotasunaren lantzeko metodologietan sakontzea du helburu. 2018-19 ikasturtean formazio sorta berri azken urteetan ikastetxeetan identifikatutako joerak eta beharrik aintzat hartuta.

IRALE programaren bitartez ez ezik beste bide batzuetatik etorritako eskaerei ere erantzun zaie: Hezkuntza sailko Eleaniztasunerantz programaren baitako prestakuntzak, edo aparteko eskaera egokituak (mintegi laburrak, ikastetxeetako ahazkotasunaren mapa aztertzeko saioak...).

Koordinatzaileak | Olatz Bengoetxea eta Isabel Godinez

Partaideak | Ikastetxeak, Berritzeguneak, euskaltegiak, hizkuntza eskola ofizialak, aisialdiko begiraleak.

**Babesleak:**

- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila
- Ikastetxeak

27

Gizartearen etorkizuneko beharrei hizkuntza biziberritzearen ikuspegitik eta berrikuntza sozialetik erantzungo dien laborategi kolaboratiboa diseinatzeko prozesua.

Koordinatzaileak | Imanol Larrea eta Asier Basurto

Partaideak |

Garapen Taldea:

- Garbiñe Mendizabal eta Joxean Amundarain, (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Imanol Larrea (Soziolinguintika Klusterra)
- Leire Cancio eta Jon Abril (Elhuyar)
- Olatz Olaso (Emun)
- Imanol Urbieto eta Lohitzune Txarola (Langune)
- Aitor Lizartza (Mondragon Unibertsitatea)

Talde Teknikoa:

- Joxean Amundarain (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Asier Basurto (Soziolinguintika Klusterra)
- Jon Abril eta Nerea Zubia (Elhuyar)
- Maite Inda eta Leire Muxika (Emun)
- Goiatz Oiartzabal (Mondragon Unibertsitatea)

IBILI

2015-2019 artean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritzak sustatutako "Euskalgintzaren berrikuntza palankak" izeneko partaidetza-prozesuaren baitan, "IBILI, euskararen berrikuntzarako laborategi kooperatiboa" proiektua proposatu zuten Elhuyarrek, Emunek, Langunek eta Soziolinguintika Klusterrak elkarlanean.

Etorkizuna Eraikiz-en barruan kokatuko litzatekeen proiektu estrategiko eta inklusibo horren egitasmoa definitu da 2019an. Horretarako, bi lantalde eratu dira: Garapen Taldea (Egitasmoaren koordinazio eta jarraipenerako zein egitasmoa gidatzeko lan-batzordea) eta Talde teknikoak (Egitasmoari forma emateko egin beharreko azterketa-lanak, elkarrizketak, kontraste-lanak, eta txostenak idazteaz arduratu den lantaldea).

Talde teknikoak gidatuta, honako urratsak eman dira: Lanerako prozesua zehaztu eta adostu da; Beste esperientzia eta laborategien benchmarking edo azterketa egin da; eta euskalgintza zein berrikuntza sozialean diharduten hainbat pertsona eta eragilerekin elkarrizketa sakonak eta talde eztabaidak egin dira. Bide osoan etengabeak izan dira erakunde sustatzaileekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzarekin eta Etorkizuna Eraikizeko lantaldearekin kontrasteak. Prozesu horren emaitza moduan, txostena osatu zen 2019ko urrirako.

Balorazio baten ostean, hiru arlotan gehiago sakontzea adostu zen: marka estrategia, laborategiaren metodologia eta gobernantza. Hala, hiru arlo horiek landuta eta prozesu osoan zehar jasotako iritzia, ikuspegi eta informazioak kontuan izanda, euskararen berrikuntzarako laborategi baten proposamena osatu da.



Babeslea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia

28

*Txillardegi –Hausnartu
Saria euskal
soziolinguistikako
ikerketara eta
hausnarketa lanen
lehiaketa*

Zuzendaria | Iñaki Martínez
de Luna

Koordinatzailea | Belen
Uranga

Partaideak | Euskal Herriko
Unibertsitatea, Gipuzkoako
Foru Aldundia, Eusko
Jaurilaritza



TXILLARDEGI-HAUSNARTU Soziolinguistika Sariak

2008. urtean sortu ziren Hausnartu soziolinguistika sariak, eta 2019an, EHU/UPVrekin elkarlana abiatzearekin batera, Txillardegi –Hausnartu Sariak izatera pasa dira.

Lehiaketaren helburua euskal soziolinguistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena da; esparru horretako ikerlarien lana bultzatzea, eta beste zenbait esparrutakoak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea (soziologiatik, hizkuntzalaritzatik, zientzia politikoetatik, psikologiatik, antropologiatik edota komunikazio-zientzietatik, esaterako).

2019ko edizioako irabazleak honakoak izan dira:

- > **Lehen saria:** Miguel Galicia Lambarri. *Ebaluazioa: euskararen aldeko ekimenen labirintoan orientatzeko gakoa*
- > **Bigarren saria:** Jon Fernandez San Martin. *Ondarroako nerabeen hizkuntza ohiturak sare sozialetan. Kode alternantzia eta erregistroak*
- > **Hirugarren saria:** Xabier Madorrán de la Iglesia. *Teknologia berriak eta hizkuntza gutxiak: IKT-en eragina euskarari*

Sari-banaketa ekitaldia 2019ko azaroaren 13an izan zen, UPV-EHUREN Donostiako Carlos Santamaria Zentroan Txillardegi Aretoa inauguratzearekin eta soziolinguistika donostiarraren gaineko erakusketarekin batera.



➔ <http://www.sociolinguistika.eus/txillardegi-hausnartu>

Babesle-laguntzaileak:

- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Eusko Jaurilaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia



29

Euskararen biziberritzearen soziolinguistikari buruzko euskarazko aldizkari zientifikoa, akademikoa eta dibulgatzailea.

Zuzendaria | Iñaki Martinez de Luna

Koordinatzaileak | Belen Uranga eta Isabel Godinez

Argitalpen Batzordea |

- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitate)
- Maria-Jose Azurmendi (UPV-EHU)
- Jone Miren Hernandez (UPV-EHU)
- Lionel Joly (Euskaltzaindia)
- Inma Muñoa (Ikastolen Elkartea)
- Beñat Garaio
- Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoa)
- Eneko Gorri (Biarritzko Herriko Etxea)

BAT Soziolinguistika Aldizkaria

1990etik argitaratzen da aldizkaria, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegik* EKBren babesean abiatu zuenetik. Soziolinguistika Klusterrak 2004. urtean hartu zuen aldizkariaren ardura.

BATEk artikulua akademikoak eta zientifikoak argitaratzen ditu; ikerketan oinarriturikoak, baita ikerketa-aplikazioko ereduak ere. Gainera, Euskal Herriko esperientzietako dibulgazioko lanak ere biltzen dira, baita unibertsitate-mailako ikastaro, jardunaldi edo topaketako hitzaldietan oinarritutakoak artikulua ere.

Zenbaki bakoitza gai monografiko bati eskaintzen zaio, eta zenbakia osatuz, beste gairen bati loturiko artikuluren bati ere bil dezake.

2019. urtean argitaratutakoak honakoak izan dira:

- 110 zenbakia: Arnasguneak, etorkizuneko erronkak
- 111 zenbakia: Bizindar digitala
- 112 zenbakia: Euskaltzaleen mugimendu berritua
- 113 zenbakia: TXILLARDEGI-HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sariak 2019



➔ <http://www.sociolinguistika.eus/bat>

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

30

Bertako eta nazioarteko soziolinguistika albisteak, hitzorduak eta argitalpenak biltzen dituen hamabostekari digitala.

Soziolinguistika albistaria

Soziolinguistika Klusterrak 2016. urtean definitu zituen zaintza teknologikoa sistematikoki egiteko prozesua eta tresnak. Hori baliatuz jarraitzen eta biltzen dira soziolinguistikaren, hizkuntza gutxituen eta euskararen biziberritzearen gaineko jardura zientifikoak, akademikoak eta sozialak.

Hala, Soziolinguistika Albistariaren bidez, besteak beste, jasotako informazio hori euskal soziolinguistika komunitateari helarazten zaio. Hain zuzen, bi astean behin, bertako eta nazioarteko soziolinguistikari buruzko 15 albiste inguruko bilduma zabaltzen da posta elektronikoan. Dagoeneko 68 zenbaki hedatu dira; 2019. urtean, zehazki, 49.etik 68.era. Modu horretan, Soziolinguistika Klusterraren inguruan lanean diharduten ia ehundaka harpidedunek azken albisteen, ikerketen, hitzorduen, irakurgaien, eragileen edo ideien berri jasotzen dute.

Albistariaren kudeaketa, kalitatea eta zabalpena hobetzeko asmoz, 2019an harpidedunen iritziak jaso dira.

Koordinatzaileak | Asier Basurto eta Maialen Iñarra
Partaidea | Leire Muxika (EMUN)



➔ <http://soziolinguistika.eus/albistaria>

Babeslea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia

4

LANKIDETZAK, HARREMANAK ETA BESTELAKOAK

Ez gabiltza bakarrik bide honetan



PROIEKTUEI LOTUTAKO HITZALDI ETA AURKEZPENAK

Euskaraldia:

- "Euskaraldia: mugimenduaren mintzoa (eta zer esan digute antolatzaileek?)" hitzaldia, Udaltop topaketetan (Lasarte-Oria, 2019/05/16)
- Nafarroako euskara teknikariei aurkezpena (2019/11/28)
- Herrietako emaitzen aurkezpen publikoak: Mungia (2019/10/17), Abadiño (2019/10/21), Donostia (2019/10/23), Usurbil (2019/11/06), Gasteiz (2019/11/13), Bermeo (2019/11/22), Zumaia (2019/11/26), Orio (2019/11/27), Zarautz (2019/11/28), Errenteria (2019/12/03)

Ahazkotasuna:

- "Fontes linguae vasconum" 50. Urteurreneko oroipen kongresuan (Iruñea, 2019/03/07):
 - "Komunikazio-gaitasunak eta ikasleen ahazko euskararen erabilera. Gako zenbait irakasleen prestakuntzarako" hitzaldia
 - "Ahazko-gaitasunen zeharkakotasuna. Hizkuntzazkoak ez diren irakasgaiak aztergai" hitzaldia
- "Murgiltzea 50 urte: emaitzak, erronkak & perspektibak" jardunaldian (Baiona, 2019/10/19):
 - "Ahazkoaren eta gramatikaren irakaskuntza immertsio bidezko irakaskuntzan" hitzaldia
 - "Eskolatik euskarazko ahazko komunikazioaren eragiteko aukerak aztertzen" hitzaldia

Erabileraren azterketa sakona:

- "Erabileraren eragiten duten faktoreak" hitzaldia, Udal<=>ekin-en (Donostia, 2019/02/26).
- "Erabileraren eragiten duten faktoreak" hitzaldia, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko



Gabinetean (Gasteiz, 2019/03/25).

- "Erabileran eragiten duten faktoreak" hitzaldia, Emun-eko teknikariei (Arrasate, 2019/09/20).
- "Erabileran eragiten duten faktoreak. Donostiako datuen azterketa" hitzaldia, San Telmo Museoan (Donostia, 2019/12/04).

Hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-ekologia:

- "Munduko hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza-ekologia" mintegia, Garabidek antolatzen duen Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroan (Eskoriatza, 2019/10/01).
- "Hizkuntza-aniztasuna munduan eta ekologia linguistikoa" hitzaldia, EHUko Munduko Hizkuntzen Ondarearen UNESCO Katedraren jardunaldietan (Gasteiz, 2019/10/06)
- "Gipuzkoako hizkuntza-aniztasuna: kudeaketa zainduaren erronka" hitzaldia, Euskaltzaindia eta Sabino Arana Fundazioaren "Immigrazioa eta euskara: ikuspegi berri baten beharraz" mintegian (Bilbo, 2019/12/12).

LANKIDETZAK ETA PARTAIDETZAK

- Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntzen Ondarearen Unesco katedraren aholkulari
- Euskal Herriko Unibertsitateak eta Asmoz Fundazioak antolatzen duten HIZNET hizkuntza-plangintza graduondokoan irakasle.
- Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen Topaldia jardunaldiarekin lankidetzat, hitzaldi nagusietatik eratorritako artikulatuak BAT soziolinguistika aldizkarian argitaratzeko..
- Maria-Jose Azurmendiri 2018ko Manuel Lekuona saria emateko Eusko Ikaskuntzak antolatutako ekitaldian hitz hartzea
- Garabiderekin elkarlanerako hitzarmena eta Kontseilu Nagusian parte hartzea
- Gipuzkoako Foru Aldundiak koordinatzen duen Euskararen Foroko partaide
- Euskaltzaindiaren mendeurreneko ekitaldietan partaide

BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA FORMAKUNTZA

- Big data eta soziolinguistika ikerketa (Jordi Morales)
- GIS teknologia eta mapagintza (Mikel Aiestaran - GISLAN)
- Euskararen estandarizazio prozesua eta ideologia-linguistikoen lehia (Jacqueline Urla)
- Soziolinguistika Klusterraren Batzar Orokorra (Andoain, 2019/03/28)

NAZIOARTEKO HARREMANAK, PARTAIDETZAK ETA KIDETZAK

- NPLD - Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sareko kide
 - NPLDren Batzar Nagusia eta "The recognition of the cultural and linguistic heritage: an instrument to stimulate the economy?" mintegia (Toulouse, 2019/06/07).
 - "Evaluation of the results of the project Euskaraldia" hitzaldia, "Activating the social use of minority languages" NPLD-Coppieters Campus-ean (Donostia, 2019/10/17).
- "Irakasleen prestakuntza eta hizkuntza gutxituaren erabilera eskolan" hitzaldia, *Teacher Training on Teaching Minority Language Oral Skills* mintegian (Gasteiz, 2019/01/18).
- "Gramática del oral en materiales didácticos destinados a la enseñanza de la lengua vasca como L2" panela, Gramatikaren Irakaskuntzari buruzko III. Nazioarteko Kongresuan (Congram) (Bartzelona, 2019/01/23-25).
- "Evaluation, Impact and Outcomes in working with children and young people in regional and minority language revitalisation efforts" mintegia (Cardiff, 2019/02/25-26).
 - "Language Use Observation Survey Methods" hitzaldia
 - "Proposal for Monitoring Factors that Affect Young People's Language Use" hitzaldia
- "Mapa de lenguas de Gipuzkoa. Identificación y distribución de la diversidad lingüística y líneas de gestión para una propuesta de sostenibilidad" hitzaldia, AESLA kongresuan (Valladolid, 2019/03/27-29).
- Galeseko Unibertsitateetako hizkuntza-plangintzaz arduratzen den Coleg Cymraeg Cenedlaethol erakundearen ordezkartzarekin bilera (2019/04/01)
- "International Conference on Minority Languages (ICML)" kongresua (Ljouwert, Frisia, 2019/05/22-24).
 - "Language data collection methodology"
 - "Mapping Language Diversity in the Basque Country"
 - "Factors affecting the use of Basque: a quantitative analysis"
- "Sharing Expertise on Boosting the Use of Basque Language in Public Communication" komunikazioa, "Sharing Society" nazioarteko konferentzian (Bilbo, 2019/05/23-24).
- Frasieraren sustapenean eta hizkuntza gutxituen komunitateen arteko harremanetan diharduen Afûk erakundearekin aldebiko bilera (2019/06/21)
- "Algunes iniciatives de revitalització de l'euskera" mintegia Bartzelonako Unibertsitatean (Bartzelona, 2019/11/18).

NAZIOARTEKO HARREMANAK, PARTAIDETZAK ETA KIDETZAK





**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2019

